

29. ARTIKULUA

Oinarrizko Heziketa Zikloak

1. Oinarrizko Heziketa Zikloak Oinarrizko Hezkuntzaren parte dira, Lehen Hezkuntzarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera. Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza osatzen dute, Erdi-mailako eta Goi-mailako Heziketa Zikloekin batera.

2. Ziklo horiek zuzentzen zaizkie, lehenasunez, lanbide-ikaskuntzekin bereziki motibatuta dauden eta, lanbide-munduarekin lotutako ingurune batean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako kompetentziak ikasteko eta lortzeko aukera gehien dituzten ikasleei.

3. Oinarrizko Heziketa Ziklora sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira batera:

- Hamabost urte beteta eduki beharko dira, edo ziklora sartzen den urte naturalean bete beharko dira.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren maila egin izana. Salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin ondoren ere sartu ahal izango da.
- Orientazio Kontseiluan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldearen gomendioa jaso izana.

4. Oinarrizko Heziketa Ziklo bateko modulu guztiak gaindituz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eta eskuratutako lanbide-kompetentziak egiaztatuko dituen espezialitateko oinarrizko teknikariaren titulua lortu daitezke.

5. Oinarrizko Heziketa Zikloek irteerako kompetentzia-profilean ezarritako kompetentziak eskuratzea erraztuko dute, honako eremu hauetako irakaskuntzak antolatzearen bidetik:

- a) Komunikazioaren eta Gizarte-Zientzien eremua. Barnean hartzen ditu Lanbide Hastapenetarako Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Gizarte Zientziak, eta Atzerriko Hizkuntza jakintzagaiei dagozkien oinarrizko alderdiak.
- b) Zientzia Aplikatuaren eremua. Barnean hartzen ditu Matematika Aplikatuak, eta Zientzia Aplikatuak jakintzagaiei dagozkien oinarrizko alderdiak.
- c) Lanbide-eremua. Barnean hartu behar du, gutxienez, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko 1. mailako kalifikazio bat lortzeko beharrezkoa den prestakuntza (katalogo hori Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 7. artikuluan ageri da).

6. IV. eranskinean zehazten dira ikasleek Komunikazioaren eta Gizarte Zientzien eta Zientzia Aplikatuaren eremuetan lortu behar dituzten ikaskuntzak.



IV. ERANSKINA

GINARRIZKO MAILAKO HEZIKETA ZIKLOEN EREMUAK

- Zientzia Aplikatuak
- Komunikazioa eta Gizarte Zientziak